

Auzolana.mp3

Auzolana lankidetzan jarduteko sistema bat da: auzotar, herritar, lagun zein bizikideak elkarlanean aritzen dira herriaren onerako izango diren lanak egiten. *Auzolan* hitza nekazaritza-eremuetan sortu zen. Hasiera batean, batez ere herriko eta basoetako toki komunetan egindako lanak izendatzeko erabili ohi zen. Gaur egun, lankidetzaren adierazteko baliatzen da, eta herri txiki zein ertain askotan ikus ditzakegu auzolanaren fruituak. Historikoki, herriko bideak zabaltzeko batzen ziren auzoetako biztanleak, edo elizak zein bestelako eraikinak txukundu zein konpontzeko, auzokideei laguntzeko edo beste zeregin batzuetarako. Inolako diru-ordainik jaso gabe aritzen ziren auzolanean biztanleak; ordaina, izan ere, auzo eta herrirentzako mesedea izaten zen. Lan horrek partaidetza bultzatzen zuen, eta herriarenganako edo auzoarenganako sentipenak ere indartzen zituen.

Europa osoan daude auzolanaren adibideak: gaztelaniaz *vereda* esaten zaio, asturieraz *andecha*, eta euskaraz *auzolana* edo *artaxuriketa*.

Gaur egun, ekonomia-eredu berri jasangarriak direla eta, jende askok egiten du bat auzolanaren filosofiarekin, eta hainbat herritan berreskuratu da lan egiteko modu hau, nahiz eta auzolanaren esanahia zabaldu egin den: aske eta borondatez egindako lankidetzaren sinonimotzat hartzen da.